# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

## 3707

*80/2025 EBAZPENA, abuztuaren 18koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, 2025eko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluak emandako zuzeneko laguntzak edo dirulaguntzak argitaratzea xedatzen duena.*

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 29.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gobernu Kontseiluak ematen dituen zuzeneko laguntzak edo dirulaguntzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira; beraz, agindu hori betetzeko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2025eko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluak emandako zuzeneko dirulaguntzen zerrenda argitaratzea, zeina ebazpen honen eranskin gisa jasotzen baita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 18a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN ABUZTUAREN 18KO 80/2025 EBAZPENARENA

2025EKO LEHEN SEIHILEKOAN GOBERNU KONTSEILUAK EMANDAKO ZUZENEKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

| Erakunde eta pertsona onuradunak / Xedea | Saila | Data | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Erabakia, laguntzak itzultzeko prozedurari hasiera ematekoa, Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkarteak aurkeztutako uko egitea onartzekoa, eta aipatutako entitateak zuzeneko dirulaguntza honetarako eskubidea galdu duela deklaratzekoa: Osasunari Aplikatutako Bioteknologiako Plan Osagarrirako emandakoa, Next Generation EU - Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barne dagoena. | Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna | 2025-01-21 | -18.794,65 € |
| Erabakia, Arabako Foru Aldundiari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen den Donejakue bideari lotutako «Gebaratarren dorre-jauregia» kultura intereseko ondasunaren erabilera turistikoa mantendu eta birgaitzeko proiektu jasangarria gauzatzeko, Europar Batasunak -Next Generation EU finantzatutako suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren esparruan. Halaber, aipatu proiektua gauzatzeko zuzeneko dirulaguntza ematea baimentzen da, hitzarmen horren bidez atondua. | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 2025-03-04 | 1.100.000,00 € |
| Erabakia, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoei zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan indarkeria-delituen biktimei berehalako laguntza juridiko doakoa emateko hitzarmenean aurreikusitako jarduerak 2025. urtean finantzatzeko. | Justizia eta Giza Eskubideak | 2025-03-04 | 2.300.000,00 €<br><br>AFA 460.000,00 €<br>BFA 1.104.000,00 €<br>GFA 736.000,00 € |
| Erabakia, laguntzak itzultzeko prozedurari hasiera ematekoa, Berrikuntza eta Ikerketa Sanitariorako Euskal Fundazioak (BIOEF) egindako ukoa onartzekoa eta Osasunari Aplikatutako Bioteknologiako Plan Osagarrirako emandako zuzeneko dirulaguntza jasotzeko eskubidearen galera deklaratzekoa. Dirulaguntza hori Europar Batasunak - Next Generation EUk finantzatutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan dago. | Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna | 2025-03-18 | -115.247,92 € |
| Erabakia, Vitoria-Gasteizko Udalari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Vitoria-Gasteizko Enplegu Foroa, Gune 2025 antolatzeko. | Ekonomia, Lana eta Enplegua | 2025-04-08 | 8.000,00 € |
| Erabakia, unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuei zuzeneko dirulaguntzak ematekoa, lehen hezkuntzako ikasleek eskolaz kanpoko errefortzu-neurrian parte har dezaten, irakurtzeko eta matematikako gaitasunak lantzeko. | Hezkuntza | 2025-04-15 | 382.289,20 € |

| Erakunde eta pertsona onuradunak / Xedea | Saila | Data | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Erabakia, Bilboko Udal Etxebizitzen erakunde autonomoari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Bilboko udalerrian energetikoki eraginkorrak diren babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko, EBko Next Generation-ek finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziako Planaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzak eta etxebizitza sozialak birgaitzeko laguntza-programak gauzatzeko. | Etxebizitza eta Hiri Agenda | 2025-04-15 | 106.039,88 € |
| Erabakia, hainbat erakunderi zuzeneko dirulaguntzak ematekoa, proiektu esperimentalen jarraipena egiteko. Proiektuok 2023ko ekainaren 27ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bitartez onartu ziren, Inklusiorako V. Euskal Planaren helburuak ezartzeko 2023-2024 Plan Operatiboaren parte izanik inklusioaren eremuan lan egiten duten instituzio publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek sustatuta. | Ekonomia, Lana eta Enplegua | 2025-04-29 | 1.049.831,86 € |
| Erabakia, Juezas y Jueces para la Democracia Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, «Kontsumitzaileen defentsa kolektiboa» jardunaldia egiteko, Bilbon. | Justizia eta Giza Eskubideak | 2025-04-29 | 4.500,00 € |
| Erabakia, Barakaldoko Udalari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, lehenagotik Lehen Urratsa programan sartuta zeuden pertsonei aldi baterako arreta emateko proiektua dela-eta, haien egoera baloratu eta, hala badagokio, esku-hartze pertsonalizatua diseinatzeko eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretura egokituz, dagokion baliabide edo baliabide-konbinazioan sartzeko. | Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa | 2025-05-06 | 90.016,78 € |
| Erabakia, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoei zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Euskadiko espetxeetako barneratuei orientazio eta laguntza juridikoko zerbitzua antolatu eta emateko hitzarmenean aurreikusitako jarduerak finantzatzeko 2025. urtean. | Justizia eta Giza Eskubideak | 2025-05-13 | 334.258,98 €<br><br>AAEO… 116.419,66 €<br>BAEO… 101.419,66 €<br>GAEP… 101.419,66 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Asociación Euskal Pilota Nazioarteko Txapelketen Antolatzaileak Elkartea entitateari, nazioen ligaren antolaketaren koordinazioa finantzatzeko eta nazioarteko kirolarien parte-hartze handiena sustatzeko. | Kultura eta Hizkuntza Politika | 2025-05-20 | 250.000,00 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, 2022an hartutako konpromisoari dagokiona, Espainiako Gurutze Gorriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen Batzordeari, larrialdien eta babes zibilaren arloan. | Segurtasuna | 2025-05-27 | 30.000,00 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, 2022an hartutako konpromisoari dagokiona, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU), UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedraren eremuan prestakuntza-programak egiteko. | Segurtasuna | 2025-05-27 | 60.000,00 € |

| Erakunde eta pertsona onuradunak / Xedea | Saila | Data | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen Fundazioari, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroak antolatu, garatu eta homologatzeko. | Hezkuntza | 2025-05-27 | 40.000,00 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Zehar Errefuxiatuekin elkarteari, erakunde horrek 2025ean Eraberean Sarearen esparruan (tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko sarea) egindako jarduerak finantzatzeko. | Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa | 2025-05-27 | 86.000,00 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa PuntuEUS fundazioari, Euskadiko saltokien digitalizazioa garatzeko. | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 2025-05-27 | 32.000,00 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutuari (Deustu Fundazioa), Euskadin talentuaren erronkari helduko dion elkarlaneko gobernantza bat eraikitzeko proiektu bat garatzeko. | Lehendakaritza | 2025-06-03 | 80.000,00 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutuari (Deustu Fundazioa), elkarlaneko gobernantza lurralde-lehiakortasuneko faktore gisa kokatzeko ikerketa-proiektu bat garatzeko. | Lehendakaritza | 2025-06-03 | 70.000,00 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Regions4 Sustainable Development elkarteari, Regions4SDGs ekimena garatzeko, eskualdeetako gobernuen gaitasunak indartuz 2030erako garapen jasangarriko helburuen ezarpena bizkortzeko. | Lehendakaritza | 2025-06-03 | 50.000,00 € |
| Erabakia, Euskal Herriko Unibertsitateari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa. Helburua: enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazioaren arloko ikerketa, prestakuntza eta transferentziako unibertsitate-estrategia global bat aktibatzeko proiektua. | Ekonomia, Lana eta Enplegua | 2025-06-03 | 88.500,00 € |
| Erabakia, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoei zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2025eko lehenengo hiruhilekoan jarraipena emateko proiektu pilotu honi: herritarrek eztabaidak konpontzeko bitarteko egokiak aukera eta erabil ditzaten sustatu eta zabaltzekoari. | Justizia eta Giza Eskubideak | 2025-06-03 | 88.544,27 €<br><br>AAEO… 17.992,87 €<br>BAEO… 43.700,00 €<br>GAEP… 26.851,40 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Garapenerako Munduko Landagunea Elkarteari, Euskadin lurralde-proiektuetarako Nazio Batuen GJH funts bateratua finantzatzeko nazioarteko foro bat antolatzeko. | Lehendakaritza | 2025-06-10 | 50.000,00 € |
| Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Fabrika Fundazioari, proiektu hau garatzeko: informatika-pasabidea egitea inGUru+ tresnaren eta enpresen eta erakundeen kudeaketan garapen jasangarriko helburuak txertatzeko esparruaren artean. | Lehendakaritza | 2025-06-10 | 25.000,00 € |
| Erabakia, Renfe Viajeros enpresari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Altsasu - Gasteiz - Miranda korridorean trenbideko garraio publikoko zerbitzuetan hobekuntzak ezartzeko. | Mugikortasun Jasangarria | 2025-06-10 | 8.968.000,00 € |

| Erakunde eta pertsona onuradunak / Xedea | Saila | Data | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Erabakia, Irungo Udalari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, «Irungo Udala» izeneko interes kulturaleko ondasunen erabilera turistikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu jasangarria gauzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen den Donejakue bideari atxikia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan –Europar Batasunak-Next Generation EU finantzatua. | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 2025-06-10 | 400.000,00 € |
| Erabakia, Somorrostro Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Lanbide Heziketako Bikaintasun Zentroen Estatuko Sarearen jarraitutasuna, garapena eta finkapena lortzeko –2. modalitatea–, C20.I02.P04 osagaiaren barruan, «Bikaintasuneko 50 zentroko sarea sortzea», Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan-Next Generation EU. | Hezkuntza | 2025-06-17 | 227.250,00 € |